

## AURKEZPENA

2006ko azaroan, Europako Batzordeak ondoko Liburu Berdea aurkeztu zuen: «Lan zuzenbidea eguneratu eta indartzea, XXI. mendeko desfioei aurre egite aldera». Lan horren xedea zen «Lan Zuzenbidea modernizatzea, Lisboako Estrategiaren helburua jadetsi asmoz, hots, modu iraunkorren haztea, enplegu gehiago eta lan hobeak eraikiz». Europako Batzordearen arabera, elkarlehiaren eta aurrerapen teknologikoaren presioaren eraginez, ekonomia aurreratueta enpresa askok lan-antolaketarako sistema malguagoak eratu behar izan dituzte, halako moduz non hierarkizazio gutxiago duten egiturak baliatzen baitituzte, langileei enpresan erabakimen handiagoa emanez eta langileok beren atazetan inplikazio handiagoa izaki.

Liburu Berde horren arabera, lan harremanetarako eredu tradizionala zahar-kiturik geratu da, «babes handiegia zuelako», eta beraz, beste kontratu-eredu batzuk garatu behar lirateke. Lan-merkatuan segmentazioa, hau da, «integratu» eta «bartzertuen» arteko distantzia gutxitzeko asmoz, kontratu klasikoaren malgutasuna areagotzea proposatu du Europako Batzordeak. Berebat, lanetik irazitaren aurkako babes murriztea ere proposatu du, zeren «babes gehiegi izateak» lan-merkatuaren dinamismoa gutxitzen du, eta horren ondorioz, emakumezkoen, gazteen eta adinekoen lan-aukerak hondatzen dira. Azken buruan, Batzordeak uste du Lan Zuzenbidearen babesaren intentsitatea laxatzea funtsezkoa dela langileen eta enpresen moldagaitasuna sustatzeko.

Liburu Berdea argitaratzearen ondorioz, eztabaida bizia sortu zen estatu kideen artean; izan ere, estatu kideok beren iritziak eman dituzte enpresek malgutasuna areagotzea lortzeko xedez lan-arautegian egin behar diren aldaketei buruz. Batzordeak komunikazio bat egin zuen 2007ko ekainaren 27an: «Malgu-segurtasunaren baterako abiaburuetarantz: enplegu gehiago eta lan hobeak malgutasunaren eta segurtasunaren bidez». Komunikazio horretan adierazten zuenez, kontratu malguak dira malgu-segurtasunaren gako diren lau osagarri-eriko bat; ondoko hauek dira gainerakoak: etengabeko prestakuntza bultzatzeko estrategiak, lan-merkatuako politika aktiboak eta gizarte segurantzako sistema modernoak. Liburu Berdeari buruzko herri kontsultaren emaitza gisa, eta Europako Parlamentuak berorren aldeko ebazpena eta Europako Ekonomia eta Gi-

zarte Batzordeak haren aurkako irizpena eman ondorik, 2007ko urriaren 24an Europako Batzordearen komunikazioa onetsi zen.

*Lan Harremanak* aldizkariaren zenbaki honetan zenbait lan biltzen dira, eta artikulu guztiok, hein handiagoan edo txikiagoan, Europako Batzordeak malgu-segurtasunaren arloan egin dituen proposamenak eta analisiak kritikatzan dituzte. Europako Batzordearen posizioa laburbildu ondoren, Francisco Lorenzok adierazten du erlazio zaila dutela malgutasunak eta prekarietateak; izan ere, egungo lan-merkatuaren ezaugarrien arabera, kontraturik gehienak aldi baterako kontratuak dira, lanaldi partzialeko kontratuak ere areagotu egin dira, eta soldatak oso txikiak dira, gehien malguarazi diren lanetan hain zuzen. Era berean adierazten du gizarte-babesak ments nabarmenak dituela aski diren sarrereren eskasia estaltzeko eta oinarritzko zerbitzu publikoak atzitzeko bideak bermatzeko; horrek guztiak, noski, langabezia-prestazioak edo pentsioak sarrera-iturri bakarizat dituzten pertsonen artean pobrezia areagotzea eragiten du.

Imanol Zuberok Danimarkako eredia azaltzen du. Hain justu ere, ELGAK eta Europar Batasunak eredu hori aurkeztu dute malgu-segurtasunaren ondore onuragarrien paradigma gisa, Danimarkako ekonomiaren emaitza onekin bateagarria delako, nahiz eta haren internazionalizazio-maila aski handia izan. Halaber, Zuberok eredu hori Europar Batasun osora zabaltzeko bideak (bide zailak) azaltzen ditu, eta ereduaren etorkizunari buruzko galderaren bat ere egiten du hausnarketa horren buruan. Eguzki Urteagak, bere hausnarketan, Eskandinaviako herrialdeak kontuan hartzen ditu eta era berean, Eskandinaviar eredu hori Europa kontinentalera zabaltzeari buruzko gaia aztertzean, aitzinetikoak baino erantzun baikorra ematen du.

Pobrezia eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Europako Sarearen (EAPN) aburuz, malgu-segurtasuna lan eta diru-sarrera duinak eta gizarte-babes handia oinarri dituen estrategiaren barruan sartu behar da, baldin eta aribideko joera negatiboak sendotzea ekidin nahi badugu, soldatak jaitea eta lan-eskubideak murriztea, lan-merkatua zatikatzea eta bazterkeria-prozesuak areagotzea alegia.

Malgu-segurtasunaren gaineko analisi eta proposamenen aurrekariak bildu ondorik, Andranik Tangian-ek kontzeptu horren definizio «operazionala» proposatzen du, eta posizio hori oinarri hartuz, ikuspegi neoliberalak, Europako Ongizate Estatuaren ikuspegia eta sindikatuen ikuspegia aztertzen ditu; azkenik, proposamen estrategiko berria egiten du: *flexinsurance*, hain zuzen ere, estrategia horrek enplegu-emaileak Gizarte Segurantzari egiten dion ekarpena kontratuaren malgutasunaren eta langabetu bilakatzearen arriskuaren menpean jartzen du, beti ere oinarritzko diru-sarrera urriei loturik.

Ricardo Calvok gogoeta egiten du malgu-segurtasunak gaur egungo lan-ereduan duen zentzuaz; izan ere, eredu horren ezaugarriak behinena azpikontratazioa zeharo garatu eta hedatzea da, bai eta enprekin inolako kontratu-loturarik ez duten kanpoko zerbitzugintza-sistemak zabaltzea ere. Horri guztiari dago-

kionez, bereziki aztertzen ditu, alde batetik, tituludun gazteek osatzen duten kolektiboaren egoera, eta bestetik, Langile Autonomoaren Estatutu berriaren funtzioa, langile autonomoek lanean jarduteko gutxieneko baldintzak bermatzea xede duena.

José Luis Monereo Pérezen eta José Antonio Fernández Avilésen iritzian, Europar Batasunaren Liburu Berdeak duen egiazko helburua Lan Zuzenbidearen oreka tradizionala birformulatzea da, hau da, alde batetik, langileei nolabaiteko segurtasun juridiko eta ekonomikoa bermatzea, eta bestetik, lanekuaren erabilera malgua bideratzea, halako moldez non, modu ezkutuan, lanaren eraketa «sozialetik» lanaren eraketa «malgura» igaroko baikara.

Malgu-segurtasunari buruzko artikulua horien osagarri, Jesús R. Marcosen lana ere argitaratu dugu. Artikulu horretan, Marcosek, lan-merkatuan fluxuak edo trantsizioak aztertzeko erabiltzen diren luzetarako analisi-ereduak aurkeztu ostean, metodologia horrek planteatzen dituen arazoak zehazten ditu. Euskal Herriko lan-merkatuan 1996-2004 epealdian izan diren trantsizioak aztertu ditu, eta horren bidez, ondorio sakonak eta gizarteari begira oihartzun handia dutenak ateratzen ditu. Horrela, jarduera berean irauteari dagozkion tasak aztertzearen emaitza gisa —tasa horiek baitira lan-egonkortasunaren neurri zehatz—, aldi baterako kontratuen iraunkortasuna handia dela nabaritzen da: azterlaneko pertsonen % 54,5-% 68,6k egoera horretan jarraitzen zuten aldi baterako lan-harremanak hasi eta bi urtera. Badira beste elementu interesgarri batzuk ere: lanean eta langabezia sartzeari/irtetean adinak duen garrantzi handia, eta lan-merkatuaren fluxuak eta ezaugarri bereziak; horiek guztiak neurtze aldera, mugagabeko kontratua duten pertsonak aldi baterako kontratuak edukitzera pasatzeko probabilitatea haztatzen duen adierazkaria aipa dezakegu, bai eta langabeziaren iraupena neurtzen duen adierazkaria ere. Horri dagokionez, aipatzeko modukoa da langabezia irautea haztatzen duen tasarik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan gertatzen dela, Estatu Espainiarraren eta Europar Batasunaren aldean.

**MIKEL DE LA FUENTE LAVÍN**  
Lan-Harremanak U.E.ren Zuzendaria  
U.P.V./EHU